



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LABen balorazioa apirilaren 1eko dekretuan
etxeko langileen inguruan jasotakoaren harira

Patriarkatua eta kapitala, aliantza koloniala

Bizitza vs kapitala, osasuna edo dirua, produkzioa eten edo irabaziak galdu, birusa gelditu edo irabaziak egiten jarraitu... Hor dago dikotomia. Dikotomia hori beti dago hor, sistema kapitalistak ekoizpenaren eta irabazien izenean bizitzari "zati" kentzen diolako. Une honetan, ordea, inoiz baino nabarmenagoa da kapitalak bizitzari kentzen dion "zati" horren neurria.

Kapitala errailetan daukagu, logikan hasi eta praktikan bukatuta; bizitza eta zaintza ezpainetan, aldarrikapenetan, estrategiak diseinatzean dago bai, baina ekintzetan ahaztuta daukagu. Mendebaldeko ezkerak zaintza banderan jarri du, diskurtsoan barneratu du: gizonengan kontraesanik sortu gabe, pribilegioei uko egin gabe, militantzia eta dinamizazio eredu berriei heltzeko ezintasunarekin, errailetan daukagu kapitalaren logika. Zaintza, mendebaldeko feminismo ezkertiarren lelo, ibilbide orri, militantzia eta lana berrantolatzeke jo muga, baina buruhauste saihestezina da.

Nola lehenetsi bizitza, nola eman garrantzia, nola apurtu kapitalaren itsasgorarekin eta zaintza erdigunera eraman? Lehendabizi gure ingurura begiratu behar dugu, gurea da ikusten ditugun zaintza anetaz jabetzearen ardura eta: nortzuk ari dira Euskal Herriko zaintza beharrak sostengatzen? Amak, amonak, ahizpak, lagunak, auzokideak... eta baita kapitalismoak (kostata izan bada ere) soldata merezi dutela onartu behar izan dien langileak: hirugarren adineko egoitzetako langileak, etxez etxeko laguntzakoak, aniztasun funtzionalean dabiltzanak, garbitzaileak, etxeko langileak... Eta hain zuzen ere kapitalismoa heteropatriarkala delako emakumeak zaintza lanetara bideratu eta kapitalak zaintza lan horien prekarizazioa areagotu du: lan eta langile horiei atera zaien etekina sekulakoa da.

Zenbatetan oihukatu dugu patriarkatu kapitala aliantza kriminala. Zenbatetan ahazten dugu kolonialismoa ere aliantza horretan ezinbesteko aldagaia dela? Hala da, etxeko langileen zapalkuntza onartu dugu mendebalde osoan, Euskal Herrian ere. XX. mendeko erdialdean, Gaztela eta Espainiatik zetozen andreak egiten zuten lan hori, beste hainbat emakume euskaldunekin batera. Gaur egun, ordea, etxeko langile gehienak beste herrialdeetatik datoz, eta kopuru handiena garai batean Espainiako inperio izan zen Hegoaldeko Amerikatik, kasualitatea, diote batzuek... Gaur egun, gu ari gara kolonialismoaren eta kolonialisten logika erreproduzitzen.

Etxeko langileei ez zaie Langileen Estatutua ezartzen, emakume horientzat eskubide sorta ezberdina dagoelako, ez soilik ezberdina, diskriminatzailea, aitortza gabekoa eta askoren kasuan inongo lan eskubiderik gabekoa. Emakume horien eskubideak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartzea 2012an onartu zen: Régimen Especial de la Seguridad Social de los Empleados de Hogar. Hau da, 2012an lehenengoz soldatapeko lan gisa onartu zen etxeko lana, aurretik ezin zen lan kontraturik egin eta. Berezia da, OSO BEREZIA: langabezia prestaziorako eskubiderik ez, kontratua aldebakartasunez eten daiteke, disponibilitate orduak amaiezinak dira, barneko etxeko lana aurreikusten da... Eta hori guztia nazioko herritarra bazara, noski; "herritar ez direnek" 2012 aurretik bezala jarraitze dute, Gizarte Segurantzaz altan egon gabe.

Estatu espainolean, egin den etxeko langileen elkarteak bultzatutako galdetegi batean emandako datuak hauek dira: 300 inkestetatik laurdena administrazio-egoera irregularrean dago, erdia baino gehiago ez dago Gizarte Segurantzaz alta emanda, eta emanda dauden artean % 23ak aipatzen du, kontratuak ez duela bere lan orduekin bat egiten; gainera, %21a barneko erregimenean dago.

COVID-19aren krisiarekin etxeko langileen egoera zaurgarriagoa bihurtu da, askok lana galdu dute, izan ere, erdia lanik gabe geratu da. %24,5a kaleratua izan da eta kopuru honetatik ia batek ere ez du kalte-ordainik jaso, sakela hutsik joan dira etxera. %63k salatzen du ez duela inongo babesik ezta prebentzio neurririk ere, hau da, eskularririk ez, maskararik ez... Benetan larria, emakume hauek zuzenean egiten dutelako pertsonekin lan. Herenak presioak jaso ditu, egun libreak ez hartzeko eta etxean zaintza lanak egiten jarraitzeko. Datuak oso deigarriak dira, COVID-19aren krisiak gogor kolpatu ditu zaintzaileak. Azken aste hauetan etxeko langileen elkarteek eskakizun zehatzak egin dizkiote Espainako gobernuari, haien egoera hobetze aldera.

Sanchezek eta bere kideek onartu zituzten COVID-19ari aurre egiteko premiazko erabaki ekonomiko eta sozial osagarriak apirilaren 1ean argitaratu ziren BOEn Bertan, aipatzen da dekretuaren helburua dela, babes berezia behar duten pertsonen bizitzarako bermeak ematea. Dekretu horren 30. artikuluan agertzen dira etxeko langileak eta haien erregimen "berezia". Izan ere, beste langile askoren egoera gutxi gorabehera arautu bada (ABEEak, kutsadura kasuan bajak, langile bereziki zaurgarriak...), ez genekien ezer etxeko langileei buruz. Bertan, gobernuak (altan dauden) langile hauei zer gertatuko zaien azaldu digu eta diruzko laguntza bat prestatu du. Hauek dira prestazio hori lortzeko ezaugarri eta baldintza batzuk:

1. Gizarte Segurantzaz altan egon behar da.
2. Enplegatzailerekin idatzizko adierazpena behar da, jardunaldian aldaketa egon dela adierazten duena.
3. **Zenbatekoa? Oinarri arautzailearen %70, eta mugatzat oinarritzko lanarteko soldata.**
4. Zenbaterako? Alarma egoera amaitu eta hilabete batez luzatuko da prestazioa
5. Itxialdi osoa dela eta baja medikua: langileak ezin badu lana egin, agintariek handik hona mugitzen uzten ez diotelako baja medikurako eskubidea eskatu ahal izango du, baldin eta agiri hauek lortzen baditu: udaletxearen ziurtagiria eta enpresaren/lan-emaielaren ziurtagiria.

Beneficiarios del subsidio extraordinario por falta de actividad para las personas integradas en el Sistema Especial de Empleados de Hogar del Régimen General de la Seguridad Social.

Hirugarren atala beltzez jarri dugu. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi du goiko izenburu horrek? Etxeko langileei langabezia prestazioa aitortu zaiela? Ez, horrelako eskubiderik ez daukate eta. Espainiako Gobernu berria eskuzabal jarri da, eta langabezia prestazioa ez den beste laguntza “berezi” bat sortu du etxeko langileentzat: poztu egin gara konformatu ez bagara ere. Etxeko langileak alarma egoera osoan ere ahaztuta egon dira, atzora arte. Altan daudenak, ekonomikoki babesten saiatu dira, osasuna babesteko neurrik barik jarraitzen duten arren. Dekretu honetan ikusi ahal dugun onura da, etxeko langileak langile gisa aitortu dituztela, eta aitortza hori ezinbestekoa da eskubideak eraiki eta borrokatzeko bidean. Ikustear dago, COVID-19 krisi ostean ze nolako baldintzetan utziko dituen langile hauek: aitortu dieten diru-laguntza langabezia prestazio bihurtuko al dute?

Sistemaren zimendu guztiak mugitzen ditu bat-bateko krisi honek eta krisietan gertatu ohi den bezala sektore zaurgarrienak bazterretara bidali dituzte. Errege-dekretu honek orokorrean ez du balio etxeko langileen premiak arintzeko edo horiei benetan erantzuteko, errealitatearen zati handi bat barne-hartzen ez duelako. Ikusi dugu, sistema kolapsatzen denean zaintza-lanak pertsonen bizitzetara eusten dietela eta sistema kapitalistak funtziona dezan motorra ere badirela. Gizartea konfinatuta dagoen une honetan, jabetzen gara zaintzaren esanahiaz, zaintzen gaituztenak babesik gabe jarraitzen dute izurritearen aurrean babesgabe. Konfinamendu honen ondoren, nola erantzungo diogu?

Oinarrizko zerbitzuak, funtsezkoak dira uneoro. Zaintza lanak oinarrizkoak dira. Zaintza lana funtsezkoa da. Zaintza lana aitortu behar da eta publikoa izan behar da. Eta Pedro Sanchezek ere badaki (onartzea kostatzen bazaio ere), martxoaren 29ko errege dekretuan esan bezala 9.atalean. “Son servicios esenciales las que ofrecen las personas que i) atiendan mayores, menores, personas dependientes o personas con discapacidad”

Eskerrik asko zaintzen gaituzuen guztioi.

Euskal Herrian, 2020ko apirilaren 3an